

## Komunikatua

Konponbidearen parte ez zarenean, arazoaren parte zara, sistema heteropatriarkal, kapitalista, kolonial eta kapazitista honen KONPLIZE ZARA. Sistema honek bortxaketaren eta sexu-indarkeriaren kultura ezarri du, gure bizitzan normala balitz bezala... BAINA EZ DA!!

Badirudi ohitu egin behar dugula, baina ezetz diogu erabat. Gu autodefentsa feministako gure tresnak birpentsatzen ari gara. NAZKATUTA GAUDE! lotsa eta beldurra bandoz aldatzen hasi dira!

Aurten ere kaleak hartu ditugu, egituraz matxista den sistema hau salatzen jarraitzeko. Izan ere, neskak eta emakumeak diskriminatzen eta hipersexualizatzen jarraitzeko modu berriak hartu ditu, eta indarkeria jasanezina sortu digu. Gure eguneroko bizitzan agertzen diren sexu-erasoetan jartzen dugu arreta, bereziki: gure zirkulu intimoetan erasotzen gaituzte, lanean, kalean bakarrik ibiltzeari beldurra diogu, gure desioa erakusteari beldurra diogu, sareetan eta jaietan jazarriak izateari beldurra diogu... Hau guztia gure bizitzekin ordaintzen ari gara: amonak, amak, alabak, bilobak... Umiliatu, jipoitu, mutilatu, hil egiten gaituzte... EMAKUMEAK IZATEAGATIK!!

Indarkeria matxistak gure seme-alaben aurkako indarkeria bikarioaren bidez ere kolpatzen gaitu, guri min egiteko erasotzen baitigute. Konponbidearen parte izan beharko luketen erakunde berberak, hala nola poliziak, justiziak, zerbitzuek, gobernuek... askotan indarkeria erabiltzen dute gure aurka ere. Nazkatuta gaude!

Indarkeria matxistak ez du etenik, erreproduzitzen jarraitzen da, eta beharrezkoa da komunikabideek horretan duten papera ere aztertzea eta aldatzea: nola zabaltzen dituzten albisteak, askotan errua emakume erasotuairengan kargatuz, nola zabaltzen dituzten iritziak solasaldi misoginoetan, zer xehetasun morbosotan entretenitzen diren... Sare sozialak gaur egun sare eta babesleku izan daitezke, baina mezu faltsuak zabaltzeko, gorputzak kontrolatzeko eta indarkeria birtuala erabiltzeko bitarteko bihurtu dira. Ezinbestekoa da hori guztia aldatzea.

Azaroaren 25ean eta urteko egun guztietan mobilizatzeko arrazoi asko ditugu oraindik. Erantzukizunak hartzeko unea da. Oraingo honetan, sistema honen konplizeak seinalatu nahi ditugu, batez ere eraso matxisten aurrean interpelatuta sentitzen ez diren eta borroka horrekin konprometituta ez dauden gizon gehienak; arazoa beraiekin ez balitz bezala, arazoa beraiek ez balira bezala.

Jakin behar duzue eraso bat salatzen dugunean gure hitza zalantzan jartzen duzuenak arazoa zaretela, arazoa zaretela lagunen arteko txiste eta iruzkin matxistak errotoz mozten ez dituzuenak, arazoa zaretela erasotzailea justifikatzen duzuenak edo errua gudan jartzen duzuenak, arazoa zaretela erasotzailea seinalatu baina zuen jokabideak berrikusten ez dituzuenak, arazoa zaretela feministok urteetan zehar salatzen dugun indarkeriaren aurrean inolako erantzukizunik hartzen ez duzuenak.

Horregatik esaten dizuegu ozen eta argi: UKATZEAK, EDO BESTE ALDE BATERA BEGIRATZEAK, KONPLIZE EGITEN ZAITUZTE.

### **Konponbidea ez bazarete, arazoa zarete!**

Hau amaitzeko ez dugu polizia gehiago behar, ezta diskurtso hutsak ere. **Ez dugu babesik behar, indarkeria matxistarekin behin betiko amaitzea baizik!!** Erakundeen aldetik "benetako" konpromiso ausartak eskatzen ditugu. Eta eredu izan daitezela. Eragiten duten indarkeria aitortzen has daitezela, inoiz ez errepikatzeko. Ahalegin guztia sistema errotik aldatzeko jar dezatela. Atzerritarrei buruzko Legea indargabetzeko eskatzen jarraitzen dugu, egoera administratibo irregularrean dauden emakume migratzaileak bi aldiz biktima bihurtzen dituenak. Haiek jasandako indarkeria matxista ere ezin dute salatu, atxilotukoak izango diren beldurrez.

Ezin ditugu ahaztu eraildako emakumeak, ezta gure ahizpa palestinarrak ere. Haiekin gaude, genozidio sionistaren amaiera exijituz.

NAHIKOA DA KONPLIZE IZATEAZ!! Horiengatik eta guztiengatik, eraikitzeko eta konponbidearen parte izateko. Bizitza duinak, askeak eta indarkeria matxistikaririk gabek bizitzeko eskubidea dugulako.

GORA BORROKA FEMINISTA!!

### **Comunicado**

Cuando no eres parte de la solución, eres parte del problema, ERES CÓMPLICE de este sistema heteropatriarcal, capitalista, colonial y capacitista, que ha instaurado una cultura de la violación y la violencia sexual, como si fuera algo normal en nuestras vidas... PERO NO LO ES!!

Parece que tengamos que acostumbrarnos, pero nos negamos rotundamente. Ya estamos repensando nuestras herramientas de autodefensa feminista.

¡ESTAMOS HARTAS: la vergüenza y el miedo han empezado a cambiar de bando!

Un año más tomamos las calles para seguir denunciando este sistema, estructuralmente machista, que adopta nuevas formas para seguir discriminando e hipersexualizando a niñas y mujeres, generando hacia nosotras una violencia insoportable. Ponemos el foco -de manera especial- en las agresiones sexuales, presentes en nuestras vidas cotidianas: nos agreden en nuestros círculos más íntimos, en el trabajo, tenemos miedo a caminar solas por la calle, a mostrar nuestro deseo, a ser acosadas en las redes, en la fiesta...

Estamos pagando todo esto con nuestras vidas: abuelas, madres, hijas, nietas... Nos humillan, nos golpean, nos mutilan, nos asesinan... ¡¡POR SER MUJERES!!

La violencia machista nos golpea incluso a través de la violencia vicaria contra nuestras hijas e hijos, a quienes agreden para hacernos daño a nosotras. Las mismas instituciones que deberían ser parte de la solución, como la policía, la

justicia, los servicios, los gobiernos... ejercen muchas veces también violencia contra nosotras. Estamos hartas!

La violencia machista no cesa, se sigue reproduciendo y es necesario analizar también y modificar el papel de los medios de comunicación en ello: cómo divulgan las noticias, cargando muchas veces la culpa en la agredida, cómo difunden opiniones en tertulias misóginas, en qué detalles morbosos se entretienen... Las redes sociales pueden ser hoy en día una red y un refugio, pero se han convertido en un medio para difundir mensajes falsos, controlar los cuerpos y ejercer violencia virtual. Es imprescindible modificar todo esto.

Seguimos teniendo muchos motivos para movilizarnos este 25 de noviembre y todos los días del año. Es el momento de asumir responsabilidades. En esta ocasión, queremos señalar a los cómplices de este sistema, especialmente a esa mayoría de hombres que no se sienten interpelados ante las agresiones machistas ni comprometidos con esta lucha; como si el problema no fuera con ellos, como si el problema no fueran ellos.

Tenéis que saber que sois el problema los que cuestionáis nuestra palabra cuando denunciemos una agresión, que sois el problema los que no cortáis de raíz los chistes y comentarios machistas entre amigos, que sois el problema los que justificáis al agresor o ponéis la culpa en nosotras, que sois el problema los que señaláis al agresor, pero no revisáis vuestras propias conductas, que sois el problema los que no asumís ninguna responsabilidad ante la violencia que venimos denunciando las feministas a lo largo de los años. Por eso os lo decimos alto y claro: **NEGARLO, O MIRAR PARA OTRO LADO, OS HACE CÓMPLICES. ¡Si no sois la solución, sois el problema!**

Para acabar con esto no necesitamos más policía, ni discursos vacíos.

**¡No necesitamos protección, sino acabar definitivamente con ella!!**

Exigimos compromisos “de verdad”, valientes, por parte de las instituciones. Y les pedimos que den ejemplo y comiencen por reconocer la violencia que provocan, para nunca más repetirla. Que pongan todo su esfuerzo en cambiar el sistema de raíz. Seguimos exigiendo la derogación de la Ley de Extranjería, que convierte a las mujeres migrantes en situación administrativa irregular en doblemente víctimas, que no pueden denunciar siquiera la violencia sufrida, por miedo a ser ellas las detenidas.

No podemos olvidarnos de las mujeres asesinadas y tampoco de nuestras hermanas palestinas. Estamos con ellas, exigiendo el fin del genocidio sionista. ¡¡BASTA DE SER CÓMPLICES!! Por ellas y por todas para construir y ser parte de la solución. Porque tenemos derecho a vivir unas vidas dignas, libres y sin violencias machistas.

**GORA BORROKA FEMINISTA!!**